

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko martxoak 21

Usurbil, 16. Zenbakia



**EURIPEAN
KORRIKA!**


HILDAKOAK



1997-03-07
Eugenia Balerdi Segurola
 65 urte.
 Santuenea



1997-03-08
Joxe Mari Lazkano Zulaika
 68 urte.
 Santuenea



1997-03-11
Juana Silva Benitez
 68 urte.
 Kontzeju Zarra kalea

JAIOTZAK

Antton Arrillaga Beloki
 (1997-03-02)
 Aginaga.

Jon Hernandez Sagardia
 (1997-02-26)
 Etxebeste kalea
 Kaleberri

EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.10	07.35	07.55	07.40	07.00	07.25	07.30	07.55	08.15
07.40	08.05	08.25	07.10 *	07.20	07.45	08.30	08.55	09.15
08.00	08.25	08.45	07.15	07.35	08.00	09.30	09.55	10.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	10.30	10.55	11.15
09.00	09.25	09.35 *	08.15	08.35	09.00	11.30	11.55	12.15
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	12.30	12.55	13.15
10.40	11.05	11.25	09.15 *	09.25	09.50	13.30	13.55	14.15
11.05	11.30	11.40 *	09.45	10.05	10.30	14.30	14.55	15.15
11.40	12.05	12.25	10.20	10.30	10.55	15.30	15.55	16.15
12.40	13.05	13.25	10.40	11.05	11.30	16.30	16.55	17.15
13.05	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30	17.30	17.55	18.15
13.40	14.05	14.25	12.20 *	12.30	12.55	18.30	18.55	19.15
14.40	15.05	15.25	12.45	13.05	13.30	19.30	19.55	20.15
15.00	15.25	15.35 *	13.45	14.05	14.30	20.30	20.55	21.15
15.40	16.05	16.25	14.25 *	14.35	15.00	21.30	21.55	22.15
16.40	17.05	17.25	14.45	15.05	15.30	22.30	22.55	22.15
17.05	17.30	17.40 *	15.45	16.05	16.30			
17.40	18.05	18.25	16.25 *	16.35	17.00	Zarautz	Usurbil	Donostia
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30	07.00	07.10	07.35
19.40	20.05	20.25	17.45	18.05	18.30	07.45	08.05	08.30
20.00	20.25	20.35 *	18.25	18.35	19.00	08.45	09.05	09.30
20.30	20.55	21.15	18.45	19.05	19.30	09.45	10.05	10.30
21.40	22.05	22.25	19.45	20.05	20.30	10.45	11.05	11.30
22.00	22.25	22.45	20.45	21.05	21.30	11.45	12.05	12.30
			21.15	21.35	20.00	12.45	13.05	13.30
						13.45	14.05	14.30
						14.45	15.05	15.30
						15.45	16.05	16.30
						16.45	17.05	17.30
						17.45	18.05	18.30
						18.45	19.05	19.30
						19.45	20.05	20.30
						20.45	21.05	21.30
						21.45	22.05	22.30


*Orioraino bakarrik

*Orietik iretzen da



Usurbilgo Udalak
 diruz lagundutako
 aldizkaria

**Dagoeneko 320 usurbildar
 bazkide ditu Noaua!-k
 Zu ere egin zaitez bazkide!**



Kultura sailak
 diruz lagundutako
 aldizkaria

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail: Noaua.
mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar, Ines
Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain,
Begoña Zubiria, Amagola
Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfonso Vidal eta
Nieves Aranburu.

Administrazioa: Arantxa
Usaralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Erredakzio
Kontseilua:** Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri
, Ainhoa Azpiroz, Mertxe
Olaizola.

Maketazioa: Susana
Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banakeia:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.000 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esamen
eta iritzien erantzunkizunik.

**Korrika 10 Usurbildik pasa
zen marxoaren 15ean.
Patxi Añorgak egin zuen
laugarren kilometroa**



Bizi da jauna!

Juan Aldasoro

Usurbilgo erretorea

Kristau fededunok gure
Fedeko alderdirik nagusia
hausnartu, berritu eta ospa-
tzera goaz: Jesusen Heriotz-
Piztuera. Hau dugu Aste
Santua.

Izan ere, Jesusena ez zen
Ostiral Santuan, Heriotzean,
bukatu. Izan zuen ondoren
bat: igande goiza. Aitak piztu
egin zuen bere seme Jesus.
Horrela Kristau Misterioa
Heriotz- Piztuera Misterioa
dugu.

Apostoluak ditugu guzti
honen lekuko edo testiguak.
Haiek bizi izan zuten honen
esperientzi berezia. Esperientzi
honek zuzpeltu eta poztu
zituen lur jota zeuden
Apostolu haiek. Honek aldatu
zuen erabat gizon haien bizi-
tza. "Bizi da Jauna eta guri
azaldu zaigu. Gu gara guzti
honen testigu, zuek ere sinistu
dezazuen".

Jesus berpiztua sumatzeak
lagundu zien Hura nor zuten
jabetzen; Haren Mezua uler-
tzen eta Haren bizikerak duen
etorkizuna aurkitzen. Jainkoak
ez du heriotzean galduta
uzten Jesusen antzera beste-

ak serbitu eta maitatuz bizi
dena. Ez ta gizonek baztertu
eta gaitzeten badute ere.
Piztuerak hau hots egiten du:
Jainkoak onartu du Jesus eta
Haren bizitz Proiekto guztia.
Maitatzeak merezi du, badu
etorkizunik.

BIZI DA JAUNA!, aitormen
hau du gure Fedeak bere
muinean; hau du bere
Ardatza. Heriotza menderatu
eta bizi den Jesus Nazaretarra
aitortzen dugu. Eta Jesus hau
aitortzeak, "BERPIZTE PROZESO"
bat egitera bultzatzen gaitu.
Jesusen antzera heriotzatik
bizitzara igarotzera:

-Xamurrik, bihotzik, zuzenik,
gizakoitasunik ezaren bideak
utzi.


-Eta beste bizitza ikuspegi,
gizakoitasun, itxaropen eta on-
den guztira esnatuko gaituen
bizikera batera jo.

Hau izango genuke bizi den
Jaunarengan Sinestuz bizi-
tzea.

Agertu aldi oro, Apostoluei
opa zien Pazko Dohaina izan
dezagula guztiokin: "PAKEA
ZUEKIN".

N • I
Ileapaindegia
MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A
Telefonoa: 36 19 51



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Pintxo eta bokata
goxo-goxoak

Eguzkitza

Herri Batasunak PNVri erantzuna

PNVk **Noaual** hamabostekarian azaldutakoari erantzunez, beraien beste hainbat ekintzaren berri ematera ere bagatoz oraingo lerro hauetan:

1) Ez da egia otsaila osoan Udala geldituta eduki dugunik, eta diogunaren fede-emaile jatorrenak aldi horretan azaldu diren herritarrak berak dira. Bai bertako langile, eta bai alkatezaren zerbitzuak egunero-egunero bezelaxe funtzionatu baitute.

2) H.Bk egindakoa hauxe izan da: batzordeak, gobernu-batzordeak eta plenoak bertan behera utzi, bizi dugun Euskal Herriaren egoera anormala salatzeko: pake-biderako eskaintza egiteagatik eta kale-razteagatik alderdi politiko baten zuzendaritza osoa kartzeleratu egin baitute; beraz, horretan geure desadostasuna erakusteko egin dugu berau guztia.

3) Gure aldeketasunik eta laguntzarik onena jasoko zuke-

en horrelakorik beste edozein alderdi politikori gertatuta ere. Hain da larria esaten ari garen hau!

4) Hala ere, ez gaitu batere harrizten, PNVko zinegotziek **Noaual** aldizkarian azaldu dutena; ez gaitu batere harrizten **Julian Beraetxe** eta **Lurdes Jauregiberri**ren jokabideak; ez horixe!, zikin-lanetan ari baitira bolada honetan. Hona hemen jarraian adibide batzuk: ELAko liberatu batek egindako idazki bat H.Bri zuzendutakoa, jakinazenez baita elkarte eta etxetan banatzen aritu dira azken bi asteotan; idatzi hori, ordea, berez ELAko Udal-delegatuena izaki, eta beraien baimenik gabe zabaldu dute. Egundoko azala behar du norberarena ez den idazki bat erregistrotik eskuratu, eta, besterik ezean jabearen baimenik gabe banatzea. Pentsa beza irakurleak berak ekintza honi nola deitu!

Hala ere, ordurako langile

guztiekin akordiora iritsi ginela jakin bazuten ez zuten hainbeste simaur-pila zabalduko, baina esan ohi den bezala: "Loa, makar huts".

5) Ez da, ordea, lehendabizikoa honetara dabiltzana; aurrez ere badituzte horrelakok eginak alproja hauek: **Orioko Benta** aldeko **Eguzkitza baserriko Arizmendi** jaunari den-dena pasatzen baitzioten Hirigintza-batzordeetan beraien buruzko kritika eta iritzi guztiak. Hartu dute lan txukunik gizajok!

6) Ez, benetan ez gera harrizten PNVko zenbait zinegotziren jokabidez: behinola H.Bko zinegotziok Udaletxean bertan bilduta geundela, **Julian Beraetxe** hantxe harrapatu baikenuen, ate-txokoa belarriak egiten, han zer esaten zenaren jakinmin ez. Zer egingo diogu ba! Balioko al du beste zerbaiteko ere!

Usurbilgo Herri Batasuna

Xirikitutik



Horrelako kamioitzarra hurbildu zen hilaren 17an frontoira. Kale osoko luzera zuen eta frontoia estalkiko biga ekarri zituen. Ikusmira ederra sortu zen jendearen artean!

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

MENDIGAIN INMOBILIARIA


**Eguzkitzako etxebizitzak,
lokalak eta garajeak**

Palazio, 28-1,
Donostia 20.008

Tlf 21 79 86



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



IDOIA PALACIOS ITURBE

24 urteko neska hau atletismoan eta futbol aretoan ibilia da, eta gaur egun Añorgako futbol taldean aurrelari postuan jokatzen du. Horretaz gain, ETBn dabil "Goenkale" telesailan errealizadore laguntzaile gisa.



Noiztik zabilta futbolean?

Ikastolako edo institutuko jolas garaietan beti partiduak jokatzen genituen. Institutuko garai hartan gainera atletismoan ere ibiltzen nintzen. U.B.I. amaitzean areto futboleko talde bat sortu nahi zuten Usurbilen, Txirpi, eta apuntatu egin nintzen.

Eta atletismoa?

Urte bete pasa nuen biak egiten. Egunero neukan entrenamendua. Oso nekatuta bukatzen nuen asteburuetan, alde batetik partidua eta bestetik krossa nuelako. Azkenean futbolak irabazi zuen.

Orain berriz Añorgan zabilta.

Bai, aurtengoa bigarren denboraldia dut bertan. Añorgatik deitu zidaten ea bertan jokatu nahi nuen galdetuz. Hasieran ez nuen nahi, Añorga niretzat gehiegi zela iruditzen zitzaidala-ko.

Zenbat gol sartu dituzu orain arte Añorgan?

Nahiz eta aurrelari postuan jokatu, iaz denboraldi osoan bakarra sartu nuen. Aurten berriz, 17 sartu ditut oraingoz.

Eta klasifikazioan zenbatgarren zoazte?

Iaz ohorezko dibisioan irabazi egin genuen. Aurten jadanik ez dago dibisio hori, nazional maila bakarrik. Bost partidu falta dira "ligilla" amaitzeko eta lehen postuan goaz. Ez dago gaizki.

Zein da gertatu zaizun xelebrekeri haundiena?

Malagan jokatu behar genuen hartakoa. Hegazkinez joan behar genuen, baina zuzenean ezinezkoa zenez, Sindikatik Bartzelonara eta handik Malagara joan behar genuen. Malagara iritsitakoan ekipaia Bartzelonan geratu zela konturatu gin.

Nola jokatu zenuten orduan?

Malagako ekipokoek utzi zizkiguten kamiseta es-tuekin. Gainera, botak ez genituenez, zapatilekin jokatu behar izan genuen, baina ez belarrezko zelaian, beste batetara eraman gintuzten.

Eta emaitza?

Irabazi egin genuen, baina bueltakoan justu-justu bueltatu zizkiguten maletak Bartzelonan.

Zein da zure jokalarari kuttuna?

Guardiola, oso ondo jokatzen duelako eta gainera ez dagoelako batera gaizki.

Telebistan lanean omen zabilta.

Bai, Andoainen Irudi eta Soinua amaitzean, Pausoka produktoratik deitu zidaten errealizazio laguntzaile lana egiteko. "Goenkale", "Gure familia eta beste piztia batzuk" eta "Los ojos de la ciudad" programa berrian lan egin dut.

Ze lan egiten duzu?

Zaila da azaltzea. Nik nork hitz egin behar duen esaten dut, denborak hartzen ditut, muntaia egiten dut... Goenkale egiten zazpi t'erdietan hasi eta hirurak laurden gutxiak arte grabatzen dugu. Arratsaldean 4etatik 8ak arte kapitulua montatzen dugu.

Goenkale ikusten al duzu etxean?

Bai. Nire lana eta gainontzeko ekipoarena ikustea beharrezkoa da. Baina elkarrizketak buruz esaten amaitzen duzu.

Ze lan egitea gustatuko litzaizuke?

Dokumentalak, animaliei buruzkoak. Eta gorilei buruzkoa bada, hobe.

Telebista ala futbola?

Futboletik bizi ahal izango banu, dudarik gabe futbola aukeratuko nuke. "Eskape" bat da niretzat. Gainera lagun onak egin ditut bertan.



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 2255

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42

ATXEGALDE



**Zaloe
Arnaiz**

Txirrista eta kulunpioak pintatu dituzte


Hil honen hasieran **udaletxe-ko langileak** nahiko lanpe-
turik ikusi ditugu ingurune
honetan. Izan ere, auzoan
konpontzeko edo hobetzeko
dauden hainbat gauzek lana
ematen baitute. **Jolas lekuko
txirristak eta kulunpioek** pintu-
ra falta zutela nabarmena zen
aspaldi honetan, gauza guz-
tietan bezala denborak eragi-
na izaten baitu. Orain, berriz,



pintatu berri dizkigutenez,
beste itxura bat daukate.
Bertara hurbiltzen diren hau-
rrak gustorago ibiliko direlako-
an gaude.

Nahiko denbora pasa da
Atxegaldeko barandila zati
bat auto batek puskatu zue-
netik. **Nouan! Amagoiak**
aspaldi eman zuen horren
berri. Barandila zati horren
puskak oraindik bertan jarrai-
tzen dute. Ez dut uste zentzu
haundiegirik duenik zati horiek
bertan egoteak. Ez dakit nork
duen hori jasotzearen ardura,
baina udalak zerbait egin
behar duelakoan nago.
Puskatu duenak konpondu zai
badaude jai dute. Ea ba, zer-
bait egiten den hori konpon-
tzeko.

URDAIAGA



**Leire
Atxega**

Eduki dezagun garbi Urdaiagako parkea

Eguraldi onarekin batera
**cauzoko parkea jendez be-
teta** agertu zaigu azken egu-
notan. Badirudi eguraldi onak
zeresan haundia duela etxetik
ateratzeko garaian. Orain de-
la hiru astetik hona eguzkia da
nagusi. Horretaz baliatuz,
guraso, haur eta aiton-amo-
nak pozez gainezka igotzen
dira **Urdaiagako Leizekaldera**.

Ez dakit konturatzen garen
nolako erregalia dugun
eskuartean parke honekin.
Hala ere dena ez da hain poli-
ta. Jendea gauzak nahi beza-
la uzten ohituta dago, baina
parkea aurrez aurkitzen zen
moduan utzi behar genuke:
garbia eta txukuna, gauzak
bere tokian utziaz. Tamalgarria



da pertsona batzuren joera.
**Parkea erabili bai, baina
ondoren dena zerri eginda
uzten dute;** zaborra bertan utzi
eta ezer gertatu ez balitza
bezala etxera joaten dira.

Teorian oso polita da "**nik
natura maite dut**" eta "**ekolo-
jista sentitzen naiz**" bezalako
esaldiak esatea, baina ahotik
ateratzen dena praktikara
eraman behar da. Eutsi goiari
lagunok! **Guztion ahalegina
beharrezkoa da natura garbi
mantentzeko.**

KALEZAR



**Pedro Mari
Matxain**

Mediterraneoan bezala palmerak Kalezarren

Ez dakit udala **Aste Santuko**
Eporretaz baliatuz jendea
Kalezarrera erakarri nahian
hasi den edo eta azken aste
hauetako eguraldi onak ikusita
Mediterraneo itxura eman
nahi dion Kalezarri. Izan ere,
martxoaren bigarren astean **bi
palmera landatu dituzte
Kalezarko Portalian**. Palmera
hauek klimari ondo egokitzen
bazaizkio **hemendik aurrera
sagarrondoan ordez palmerak
landatzen hastea hobe** ez
litzatekeen izango pentsatu
beharko dugu.

Orain dela denbora gutxi
**ermita azpiko gurutzeak berriz
jarri dituzte. Aste Santua** gai-
nean dugunez, eta prozesiorik
egiten ez dela ikusita, **Erniora**
joan gabe **Kalezarren gurutz-
bidea** egin dezake edonork
gurutzeetan errezatuz eta aldi
berean palmerak ikusiaz.
Gurutze hauek berriz jarri badi-
tuzte ere **Arratzain gainean**
eta beste toki batzuetan ere
baziren gurutzeak. Hauek ez
dituzte berreskuratu. Behin hasi
ezkero...



KALEBERRI**Ines
Kamino****Carmen Astigarraga
filosofian doktoratu**

Joan den urtarrilaren 28an, Salamancako Unibertsitatean 11 ikasle doktoratu ziren. Hoiere artean zegoen **Carmen Astigarraga Sanchez** usurbildarra. Eguzkitzaldeko emakume hau **Filosofian doktoratu zen**, nota oso onekin. **Salamancako Unibertsitatean** egiten den doktoretza ekitaldi hau tradizio haundikoa da.



Ospakizun hau Erdi Aroan ere egiten zen eta oso ekitaldi berezia da.

Ikasketa kontuak alde batera utzi, eta izenik gabeko errotondaz hitz egin behar dut orain. Aurreko alean errotonda hagin berriaren zain zegoela esaten zen porrusaldan. Handik laisterrera **hagin berria errotondaren erdian** ikus zitezkeen. Aurrekoa baina indartsuagoa izango ote da. Oraingoz eguraldiaren kexurik ez du izango behintzat, eguraldi ederra izan baitugu martxoan.

Azkenik eraikuntza kontuak

pil-pilean daudenez gauza pare bat ditut esateko honen inguruan. **Frontoiko estalkia jartzeko lanak geldirik daude berriz ere.** Lehen garraiolarien greba eta orain eraikuntzako langileen greba. Martxa honetan noiz amaituko ote dituzte lanak?

AGINAGA**Iratxe
Begiristain****Antzerki eguna eskola
txikien eskutik**

Martxoaren 14an **antzerki eguna** egin zen **Aginagan**. Arrate zahar egoitzaren gainean dagoen aretoan, **eskola txikietako haurrak** bildu ziren hauetako hiru eskolek eskaini zituzten antzerki lanak ikusi asmoz.

Lehen-engo antzerkia Aginagako ikasleek eskaini zuten. **"Pedro tonto"** zen antzerkiaren izena eta antzezleri bikainak direla erakutsi zuten parte hartu zuten bederatzi hurrek. Ondoren, **Aizarnako eskolako haurrek** hiru antzezlan ezberdin taularatu zituzten. Ikuskizunari amaiera emateko Angiozarko eskolako ikasleek aurkeztu zuten beren antzezlan.

Egun ederra eskola txikietako haurrek pasatakoa. Aurrez aipaturiko eskolez gain Aginagan izan ziren **Arrua, Zubieta eta Santueneako eskolako haurrak** ere.

**ZUBIETA****Xabier
Arregi****Bide konponketa proiektuei ekin nahi**

Zubietan protagonismo nabarmena du **bideak**. Ikusi egin behar da **nolako mugimendua** dagoen: oinezkoen andanak, korrikalariak, hara eta hona ziztu bizian dabiltzan autobus, kamioi eta kotxeak. Gurdiak ez, horiek gutxitu egin zaizkigu, baina gainerakoan klase guztietako autoak "sosegatzen" dira **Zubietako pasealekuan**.

Nabarmena da, neurri berean, **zenbat istripu** gertatzen diren: kaskakoak gehienetan, baina baita zartada dezenteak ere maiz samar. Istripu horiek saihesteko asmoz, **bihurgune arriskutsuak zuzentzeko proiektu** bati eman nahi zaio hasiera aurten. Lehenengo fasean **Amiritik hasi eta bi edo hiru bihurgunetan obrak** egitea nahi litzateke.

Hipodromo aldean ere **kexu** dira **Landaberri ikastolako gurasoak**, haurrek pasa behar duten arriskua dela kausa. Izan ere, Lasartetik irteera zaildu denez gero, Hipodromo atzeko bideak zirkulazio izugarria baitu. **Zirkulazio haundia eta bide estua: horra arazoa.**

Landaberriko gurasoak kexu eta **Zubietako eskola txikiko gurasoak pozik**. Eskola txikiak irauteko arazo latzak zituen haur eskasia dela eta. Hala ere, Hezkuntza sailetik esan dutenez, **datorren urtean ere zabalik egongo omen da gure eskola txikia**. Zorionekoak haur guraso eta irakasleak. Eta zorionekoak zubietarrak, haur- eskola herri- eskola baita, eta eskola galtzea zubietar guttion galera baita.

H erorrek esan



Begoña Arriaga

Kaleberri

Noski, mundu guztiari bezala.

Eguraldi onak asko pozten nau, gorputza alaiago sentitzen dut. Beraz, "la primavera la sangre altera" delako hori nik behintzat ederki nabaritzen dut.



Alaitz Kamino

Kaleberri

Udaberriak ez dit bereziki eragin.

Bestela ere, urte guztian zehar nahiko "alteratuta" ibiltzen naiz eta.




Maite Labiano

Troia

Bai. Kalera ateratzeko

gogo gehiago edukitzen duzu, alaigo zaude, astebururako gauza gehiago prestatzen dituzu... Beste zentzuan aldiz ez dut inongo eraginik izaten udaberriaren etorrerarekin.



Iñaki Agirresarobe

Kaleberri

Negutik udaberri giro onarekin pasatzen bagara, jai giroa somatzen hasten da, eta horrek badu eraginik zuregan.

Gainera, eguraldi ederra egiten duenean, askoz ere pereza haundiagoa izaten dut etxera bueltatzeko.



David Carramiñana

Atxegalde

Bai, nabaritzen dut aldaketa.

Batez ere kurtsoa amaitzeaz dagoela konturatzen naizelako. Udara gertuago dagoela ikusita, alaiago sentitzen zara eta gogo gutxiago duzu etxera joateko.



Elias Sagardia

Kaleberri

Bai. Asko gustatzen zait eguraldi

ona, gorputza alaiago jartzen da eta animosoago sentitzen zara. Euria egiten duenean pereza haundiagoa izaten dut kalera irteteko, baina azken egun haue-tako eguraldiekin kalean hobeto egoten da.



Aizpea Manterola

Kalezar

Bai, aldaketa nabaritzen

dut, baina askotan komunikabideek eta jendeak etengabe esaten dutelako ere izaten da. Zuk sinetsi egiten duzu udaberria etorri dela. Bestetik, osasuntsuago sentitzen naiz garai honetan. Gainera, eguna luzatzea primeran etortzen zait lanera egun argiz joateko.



Maria Puentes

Kaleberri

Niri udaberriak gaizki egiten dit.

Polena dela eta garai honetan airean dauden beste "gauza" batzuk direla medio, alergiak eta beste gauza asko izaten ditut eta benetan gaizki pasatzen dut. Askoz ere nahiago dut negua.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

GALARRA
GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Aintzinako gurutzbidetik udaberriko oporretara

Udaberriarekin batera datorkigu Aste Santua ere. Aste honetan hainbat ospakizunetan murgiltzen da eliza: Jesusen Azken Afaria, bere heriotza, piztuera eta bizi berrira igarotzea. Aste honetan gurutz-bideak, eliz-birak, pasio-irudiak izaten dira nonnahi. Hala ere, askorentzat atsedeen egun, zubi luze eta udaberriko oporraldi bihurtu da.

Aurten joan den urteetan baino lehenago dator **Aste Santua**. Martxoaren 23an **Erramu egun**arekin hasten da. Egund honetan erramuak elizan bedeinkatu eta etxera eramaten dira. Aste honen barruan lau egun ditugu aipagarrienak:

Ostegun Santua, martxoaren 27an, Jesusek, hil aurretik, bere diszipuluekin Azken Afaria egin zueneko ospakizuna da. Bere ituna edo testamendua: "Egizue hau nire oroigarri". Elizak, Kristau Elkarteak, gizaldiz-gizaldi Azken Afari hori ospatzen jarraitzen du.

Ostiral Santuak Jesusen gurutziltzatutako heriotza gogoratzen du. Jesus gurutzera eraman zuteneko gertakizun hura. Historian zehar gehien oroitzen eta arrastorik haundiena utzi duen gertaera.

Aste osoaren gailurra, festa burua,

Larunbat Santu gaua eta **Bazko eguna** dira. Nazaretoko Jesusen piztuera, heriotzatik bizi berrira igarotzea. Bazko hitzak, grekeraz, hau esan nahi du: igarotzea.

Usurbilgo prozesioak

Hiru egun hauetan prozesioak edo gurutzbideak nagusi izaten dira hainbat herritan. Usurbilen ohitura hori aspaldi galdu zen. Lehen, Ostiral Santuan hainbat ospakizun egiten ziren:

Goizeko 7.00etan, gurutzbidea egiten zen Usurbilen, "calbarioa". San Salvatore parrokiari hasi eta Kalezarren, lehen hiru gurutze zeuden tokian amaitzen zen, ermita ondoan. Usurbildar ugarik hartzen zuten parte, kantari, gurutzeak zeuden lekuan errosariorako geldialdiak eginez.

Arratsaldean, beste prozesio bat egiten zen. Nazaretoko Jesus gurutzetik jeitsi eta krista-

lezko kutxa batean sartzen zuten. Ondoren, kutxa hau bizkar gainean hartu eta Jesusen ehortzeta izango balitz bezala prozesioan ateratzen ziren kantu-kantari.

Azkenik, prozesioa amaitu ostean jaunaren zainketa. Bazko gaua iritsi arte, Jesusen piztuera arte, 4 usurbildarrek, bi emakume eta bi gizonezko, kristoren kristalezko kutxa zaintzen egon behar izaten zuten momentu oro. Ordubeteko txandak izaten ziren, aurrez XXXXXX Aranburuk finkatzen zituelarik nortzuk egon behar zuten eta zer ordutan.

Aste Santuan opor usaina

Aste Santuan, ordea, bestelako ohitura bat oso da zabaldu Usurbilen. Jai egun hauetan jende asko Usurbildik irten eta hortik zehar joaten da, **udaberriko oporrak** balira bezala. Aurten ere, berdina gertatuko da. Batzuk, bidaia agentziek Aste Santurako aurkezten dituzten zirkuito bereziaz baliatzen dira kanpora joateko. Beste batzuk, kotxea edo tren hartu eta Euskal Herriko txokoak bisitatzea nahiago izaten dute. Aste Santuko zubi luze honek aukera ugari eskaintzen ditu: batzuk eliza, eta besteak ibiza.

Josu Aranberri



TABERNA

Pintxo bereziak
eta
giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

639.739.498 pezetako aurrekontua

Urtero bezala onartu dira 1997. urteko aurrekontu orokorrak. Iazkoarekin konparatuta 61 milioi inguruko igoera eman da aurten, 639 milioiko aurrekontua izango baitugu. Aurrekontu hau martxoaren 14an egin zen udal batzan onartu zuten udalean ordezkariak duten alderdi politikoek. Herritarrek, elkarteek... hilabete bateko epean aurrekontuei alegazioak jarzkeko aukera dute. Epe hori igarota behin-betirako onartuko dira.

Herri Batasunaren zazpi zinegotzien eta Izaskun Maiz independientetaren baiezkoto botoarekin, Eusko Alkartasunako bien abstentzioarekin eta Alderdi Jeltzaleko bi zinegotzien aurkako botuarekin behin-behingo onartuta gelditu da 1997rako aurrekontua. Alderdi Sozialistako udal ordezkaria ez zen azaldu martxoaren 14an egindako udal batzarrera eta honenbestez zortzi izan ziren aldeko botuak, bi kontrakoak eta abstentzioak beste bi.

Aurrekontuak onartzeko prozedura

Herri Batasunak egindako aurrekontua urtarrilaren 29an banatu zitzaizen alderdi politiko guztiei. Otsailaren 4an aurrekontuaren azalpenak eman zizkien Herri Batasunak gainontzeko alderdi politikoei Hazienda batzordean eta aurrekontu proiektua aztertu eta emendakinak edo galderak egiteko otsailak 14a bitarteko epea utzi zen. Denbora honetan ez zen emendakin edo galderarik aurkeztu, baina bai martxoaren hasieran. Izan ere, Eusko Alkartasunak zenbait galdera egin zituen eta martxoaren 11n egindako Hazienda batzordean galdera horiek



Martxoaren 14an egin zen udal batzan onartu ziren behin-behineko 1997rako aurrekontuak

argitzen saiatu ziren Herri Batasunako ordezkariak.

Egokitasuna eta kontrola ezaugarri hartuta

Joxe Antonio Altuna alkateak adierazitakoaren arabera, "sarrera guztiak, banan-bana zaindu eta mihatu ondoren ahalik eta erarik egokienean gastatzea planteatzen da, gastua murriztuz eta inbertitzeko ahalegina bultzatuz. Azken bost urtetako inbertsio mailarik onena lortu dugu eta guztia udalak aurreratutakoarekin finantzatuta". Bestalde, aurrekontuaren gaineko kontrola azpimarratzen du alkateak, "aspaldiko partez Udalaren zorbizia bere aurrekontua baino txikiagoa da aurten. Finantz osasun onaren bidetik Udalaren zorrak nabarmen murrizten ari gara. Honez gain, azpimarratzekoa da Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak gero eta ugariagoak direla, ardura berriak hartzen ari gara, ibilgailu berriak erosiz, pertsonala egokituz... Azken finean, Udala sendotu egin

nahi dugu eta ahal dugun neurrian herritarrei eskatzen dizkiguten zerbitzu guztiak eskeini. Ildo horretan aurrekontu honek zerbitzuen kalitatea eta egokitasuna bilatzen ditu."

Aurrekontuen onarpena zintzilik uzteko eskaera

Usurbilgo **Eusko Alderdi Jeltzaleak** aurrekontuen onarpena bertan behera uztea eskatu zuen. **Lurdes Jauregi-berri** zinegotziaren esanetan, "aurrekontuak otsailaren 29an jaso genituen. Batzordea segituan izan zen, otsailaren 4an, eta ez genuen denborarik izan aurrekontuak begiratzeko. Geroztik batzorde bakarra izan da. Gure ustez argibideak eskatzeko denborarik ez dugu izan. Guk aurrekontua aztertu dugu, baina udaleko funtzionamendua geldirik egonenez batzordeetan argibideak eskatzeko denborarik ez dugu izan". Aurrekontuen onarpena bertan behera uzteko eskaria ez zen onartu, **Herri Batasunak** kontrako botoa eman zuen, **Izaskun Maiz** eta

Eusko Alkartasunako zinegotziek bezala. Ondoren **Alderdi Jeltzaleak Herri Batasunak** aurkeztutako aurrekontuaren aurkako botua eman zuen.

Aurrekontuaren inguruko argibideak

Eusko Alkartasuna abstenitu egin zen martxoaren 14ko udal batzan argibide batzuk eskatu ondoren. "*Guk galdera batzuk prestatu genituen eta Hazienda batzordean erantzun zitzaigun-* dio **Luis Mari Ormaetxeak**- *baina gure galderetako bat, udaltzainen soldatetan sortutako diru saltsa, ez dago ondo oraindik. Bestalde, iazko aurrekontuen auditoria jarri zen aurrekontuen barne, eta ez dakigu hori egiteko asmoarekin jarraitzen duen ala ez*". Honekin batera, joan den urteko aurrekontuan Atxegaldeko urbanizazioa txukuntzen hasteko partida bat egon zela eta aurtengo aurrekontuetan ez dela azaltzen azpimarratu zuen **Eusko Alkartasunak**.

Azkenik, **Salome Porturen** esanetan, "*Zubietako udal batzordearen gestio ahalmena ez dugu garbi ikusten. Gastu orokorra bezala bi milioi ematen zaizkie eta transferentzi moduan, inbertsio bezala, zortzi milioi Ez dugu argi ikusten Donostiak eta Usurbilek zer ordaindu behar duten*".

108 milioi inbertitzea espero da aurten

1997ko aurrekontua eta 1996koa alderatuz aldaketa ugari atzematen dira, bai gastuetan eta bai sarreretan. Gastuetan aipatzekoa da inbertsioen maila altua. Iaz 83 milioi inbertitu baziren aurten 108 inbertituko dira. **Hirigintzan** 41.3 milioiko inbertsioa dago aurreikusita. Hilerrri berriko lurak, Kiroldegi aurreko zelaiak (Lurkoa) erosiko dira.

GASTUAK ZERBITZUKA

Zerbitzua	Aurrekontua 1996	Aurrekontua 1997
1- Zerbitzu ekonomikoak	118.008.856	108.121.708
2- Zerbitzu orokorrak	75.228.551	73.376.202
3- Hirigintza, obrak eta ingurugiroa	53.566.315	55.048.659
4- Zerbitzuak eta nekazaritza	151.504.188	170.852.068
5- Udaltzaingoa	25.686.844	29.986.517
6- Hezkuntza	30.368.895	32.678.500
7- Ongizatea eta sanitatea	33.635.982	50.605.151
8- Hastapen tailerra	19.766.696	23.028.583
9- Garapen Agentzia		13.110.931
10- Kultura, gazteria eta kirola	59.983.648	68.377.331
11- Euskara	7.783.463	11.704.791
12- Guztira	575.533.438	639.739.498

Nekazaritza eta Zerbitzuetan (41 milioi), Urkamendi-Troia-Arrate inguruko nekazal bideak txukunduko dira, Aginagalzpira aldekoak ere bai. Bestalde, makinariari dagokionez brigadarentzako kalegarbigailuaren erosketa da inbertsio nagusia. **Ongizate eta sanitatean** (18 milioi) lehen ambulatorioa zegoen lekuan egingo den zahar egoitza berria agertzen zaigu inbertsioen artean. **Udaltzaingoa**, berriz, kotxe berria erosiko da, eta **kulturarako** bi milioko inbertsioa aurreikusen da.

Bestalde gastuekin jarraituz, pertsonal gastuak gorantz egin dute %5,6an, langileei ordainketari IPK igoera aplikatuaz. Finantza gastuek laugarren urtez behera, oraingoan %29,6an. Transferentzi arruntei dagokionez Zubietako udal batzarrari eginiko transferen-

tzia, Ongizateko transferentziak eta kultura transferentziak haunditu egin dira. Azkenik ondasun arrunt (material erosketak, konponketak...) eta zerbitzuen erosketa (Añarbeko ura, Garapen agentzia, animalien bilketa...) dexente igotzen da, %15,6a.

Nola egingo zaie aurre gastu guzti hauei?

Zerga zuzenen bidez (ura, zaborra...) 152 milioi jasoko dira. Tarifak eguneratzearen ondorioz 137 milioi jasotzetik 152 milioi jasotzera pasako da. Zeharkako zergekin 52 milioi jasotzea espero da, iaz baino 15 milioi gehiago. Tasak eta bestelako sarrerak (lizenziak...) nabarmenki haziko dira, 103 milioitik 128 milioitara. Goragoko beste organismoetatik 303 milioi jasotzea aurrei-

76 zuhaitz gehiago Usurbilgo lurretan



Eguraldi ezin hobez ospatu zen martxoaren 9an **Zuhaitz eguna**. EKTko kideek prest zeuzkaten txori kabiak eta zuhaitzak **Gorostitxo-gaineko azpikaldean**. Baina igande goiza zelako edo, ez zen jende gehiegi hurbildu. Pena da naturaren aldeko ekintza honek jende gehiago ez erakartzea. Eta gero kutsaduraz kexatuko gara...natura zaindu egin behar dela esango dugu...

Hurbildu zirenek, hala ere, gogoz ekin zioten egitekoari. Haurrak izan ziren lehenengo animatu zirenak, eta eskilara baten laguntzaz txori kabiak jartzen hasi ziren. Egurrezko kabiak dira eta kaxkabeltxa eta antzeko txori txikientzako moduak.

Ondoren, aitzurrak hartu eta zuhaitzak landatzera!

Guztira 20 arte, 20 haritz arrunt, 20 norteko haritz eta 16 sekuaia erraldoi landatu ziren. Azken hauek 45m.ko luzera izatera iritsi ohi dira.

Egindako lana saritzeko hamaiketako eder bat egiteko aukera izan zuten hurbildutakoek. Baina lana ez da hor bukatzen. Orain zelai hori zaindu behar da, eta ingurukoak txukuntzeko asmoa ere badago. Hilerrri berria egiterako baso ederra izango ditugu aldamenean.

Martxoaren 7an greba orokorra Usurbilen

Herri Batasunak mahai nazionalaren kartzelaratzea salatu eta Alternatiba Demokratikoaren defentsan martxoaren 7rako egin zuen greba deialdiaren eragina nabarmena izan zen Usurbilen. Dendak eta tabernak itxita egon ziren egun osoan zehar. Hezkuntzan, **Udarregi ikastolan, Ageri-Alden eta Zubietako Lanbide Eskolan** ez zen klaserik eman. Industriari dagokionez berriz, grebari izandako eragina ezberdina izan zen. Zenbait lantegietan ez zen lanik egin, besteetan greba ez zen erabatekoa izan eta normaltasun osoz lan egin zuten lantegiak ere izan ziren. Goizean kaleberri inguruko kaleetan normaltasunez ibiltzea oztopatzen zituzten barrikadak zeuden nonahi.



Alpeetako diapositiba emanaldia Udarregi Zaharrean



Martxoaren 12an, asteazkena, Andatza K.K.Ek antolatutako "**25 igoera Alpeetan**" **diapositiba emanaldia** ikusteko aukera izan zuten bertara inguratu ziren 30 bat mendizalek Udarregi zaharrean. Diapositibak, igoera hauetan parte hartu zuen **Joseba Ugalde** mendigoizaleak komentatu zituen musikaren laguntzaz, eta nahiz eta azkar xamar egin, mendikate eder honetako ikuspuntu ikusgarri eta ederrak ezagutzeko aukera izan zuten. Emanaldiak 45 minutu inguru iraun zuen, baina Monte Rosado edo eta Diente del Gigante bezalako parajetan murgiltzeko parada ezin hobea eman zigun Josebak.

ARRANTZARAKO LIZENTZIA ZABALIK

Arrantzarako lizentzia martxoaren 15ean ireki zen, eta hemen-dik aurrera **arrantza lizentzia** zein **federatu txartela** ateratzeko aukera daukazeu. Horretarako Santueneako **Ibai-ondo** elkartera zuzendu zaitezke **arratsaldetan**. Lizentzia eta federatu txartela arrantza egiteko baimena ematen dute, eta baita lehiaketetan parte hartzeko ere. Dena dela, aurten amuarrainik ez dagoez, izokinak arrantzat/harrapatu beharko dira.

62 PERTSONEK EMAN ZUTEN ODOLA

24,8 litro odol jaso ziren guztira joan den martxoaren 10ean Usurbilgo anbulatorioan. Urtarrilaren 10ean baino zazpi pertsona gehiagok eman zuten odola, 62k. Odola



Martxoaren 8an, larunbatean, Frank zirkoa izan genuen Usurbilen. Goizean goiz usurbildar haurren egunerokotasuna hautsi zuen Akitaniako zirkoa kiroldegi aurrean kokatu zen, Oiardoko aparkalekuan hain zuzen ere. Ikusi al duzue jirafa? eta adar luzedun animalia hori? Honelako galderak eta beste harridurazko hainbat esaldi entzun zitezkeen kiroldegian. Arratsaldeko bostetan, berriz, jende ugari Frank zirkoaren emanaldi bakarrean. A ze gozamina ume eta hain ume ez zirenetzat!

eman zutenetik lau berriak ziren eta Usurbilgo odol emaileen elkartetik jakinarazi zaigunez bestetan baino jende gehiago joan zen analisiak egin edo eta zer motatako odola zuen jakitera. Gogoratu pertsona bakoitzak 0.4 litro odol

ematen dituela eta ez 4 litro, aurreko ale batean jarri genuen bezala. Hurrengo odol emateko eguna maiatzaren 12a.

EPERRA IKASTOLAREN ALDE

Sohütan eraikitzen ari diren Eperra ikastola-

ren aldeko kanpainak aurrera darrai. Usurbilen **500.000 pezeta** bildu nahi dira. Zuk ere lagundu nahi baldin baduzu, **1.000 pezeta** ematea besterik ez duzu. Euskadiko Kutxa: **140.0.01113.3** edo Gipuzkoa Donostia Kutxa: **2101 0069 16 00.1062909.5**. Aurreko alean **Eperra ikastola** laguntzeko 600 kilo ezti erosi zituztela aipatu genuen. Datu hau ordea ez da zuzena, ezti hori nafar lagun batek oparitu baitie.

AUTOBUS ZERBITZUEN ALDAKETARI EZETZA

Autobus zerbitzuen erabiltzaileek eskatuta udalak autobus zerbitzuen ordutegiak aldatzeko egin zuen proposamen berriari ezezkoa eman diote bai Eusko Trenbideak eta baita Foru Aldundiak ere. Badirudi Orio eta Aiako alkateek ez dutela onartu proposamen berria.



Korrika 10 zela eta usurbildar ugari inguratu zuten Zubietako hipodromora. Usurbildik oinez joan zirenek lehenbizi eta korrikarekin zihoazenek gero panorama tamalgarria ikusi zuten Ori ibaian. Ibai ertzean ehundaka arrain ikus zitezkeen hilda. Aliriko zubi azpian, hipodromoko zubian... nonnahi ikusten ziren. Kasualitatea. Euria eta eguraldi txarrarekin batera arrain ugari hilda ibai ertzean. Lantegiek ondo aprobeztatu behar euri egunak euren isurkinak botatzeko.



Frontoiko estalkia egiteko lanak geldirik daude, Eguzkitzaldeko etxebizitzaren eraikuntza geldirik dago, Ingemarren ez da lan hotsik entzuten...Izan ere eraikuntza arloa greban dago Gipuzkoan. Joan den martxoaren 11n hasi zuten mugagabeko greba eraikuntzako langileek. 1997rako hitzarmen kolektiboaren negoziazioan ez ziren akordio batetara iritsi eta honenbestez lan egiteari utzi diote. Lehendabizi garraioa, gero eraikuntza, zer ote dator ondoren...

KIROL KOPLA



Esteban Iribar

Gero eta gehi-
go komunika-
bideen menpean bizi behar duen
gizarte honek, mutu irentsitzen du
futbola dela, itxura denez, kirol baka-
rra. Gizakiok diruzale porrokatuak
garenez, bere hotsaren zirrarak ero-
tzen gaitu. Nork ez du ezagutzen
Ronaldo? Zergatik ezagutzen dugu?
Gure poltsikotik zenbat ordaintzen
diogu bakoitzak jokalarri ospetsu
horri?

Hala ere, indar boteretsu horiek
(komunikabideek) ez ikusia egin
arren, badauzkagu gure inguruan
eta baita ere gure herrian, oso
maila altua lortua duten beste hain-
bat kirol mota ezberdin.

Nik gehien ezagutzen dudanez,
aipatu Usurbilen eskubaloia 1963an
sortu zela. Berebiziko berrikuntza
suposatu zuen, orduan hemen pelo-
ta baitzen nagusi. Gainera, eskuba-
loia kirol berria zen Gipuzkoan.

Jadanik hogeitamalau urtetan
etenik gabe jardun duen kirol ikus-
garri honek emaitza on asko ekarri
du, denetan garrantzitsuena gizarte
heziketa. Kirol emaitza izugarriak ere
izan dira. 1971, 72 eta 73an jubenil
mutilek estatuko txapelketan parte
hartu zuten, 1983an kadete neskek
ere bai. Azken hiru urtetan, berriz,
Euskadiko txapelkunak izan gara
kadete eta jubenil mutiletan.

Ezin ahaztu Xabier Mikel Rekondo,
usurbildar eskubaloilari ospetsua,
mailarik gorenera iritsi den kirolari
trebea.



Andatza K.K.E.-ak antolatutako eski irteerak arrakasta itzela izan zuen. 74 usurbildar joan ziren Pirineotara.

"Eskiatzaile" usurbildarrak Gavarnien

Martxoak 8. Goizeko bost ter-
diak Usurbilen. Gero eta jende
gehiago agertzen da frontoi
inguruan. Batzuk erdi lotan,
besteak motxilak eta eskiak
karriatu ezinik... Azken asteeta-
ko ezinegona nabari daiteke
aurpegietan. Egongo al da
elurrik? Eskiatzeko modurik
izango al da?.

Eskiatzeko nahiko elurra izan
zuten martxoaren 8 eta 9an
Andatza K.K.E.-ak antolatuta
Usurbildik Luz Ardidenera joan
ziren 74 pertsonak. Inoiz eskia-
tzen ibili gabeek, noiz edo
behin joandakoek eta aldapa
haundiak jeisten trebetuta
daudenek... gozatu ederra
hartu zuten Gavarnie-ko pistea-
tan.

Eguzkiaren izpiek aurgegiak
gorritu bai, baina ipurdikoak

hartuta bapatean masailak
gorritu zitzaizkionik ere izan zen.
Danbatekoak etengabeak
izan ziren eta ubelduak ere
bai. Baina Tomba edo
Blancaren antzera dotore-
dotore eskiatzen duten eskia-
tzaileak ere ba omen ditugu
gure artean.

Ondoren, Usurbila itzultzera-
koan bozketa bidez sari batzuk
banatu ziren eta hona hemen
emaitzak:

- Mis Sky..... Mari Mar Uribe
- Mister Sky..... Juan Joxe Olano
- Kamikaze.... Joxe Manuel Ikutza
- Tomba..... Aitor Egileta
- Blankita..... Susana Martin
- Danba..... Pako Esnaola
- Saiatu..... Enrike Uli
- Matxinsalto... Juantxo Roteta

MAHUKA



GAZTE DENDA

**Orain, udaberriko
puntako moda**

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06



Eskaitze

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

Zatoz Noaua!-ren Batzar Orokorrrera!

Jadanik urtebete pasa da **Jusurbildar** talde batek **Noaua! Kultur Elkartearen** egitasmoa martxan jarri zuenetik. **Batzuei** ezinezkoa iruditzen zitzaien **300** bazkideko muga ere pasa dugu (**320** inguru gara) eta jende ugari dabil proiektu hau aurrera ateratzeko makina lan egiten. **Datorren martxoaren 22an, larunbata, elkartearen lehen Batzar Orokorra** egingo dugu **Udaletxeko Batzar Aretoan, eta ahalik eta Noaua! zale gehienak etortzea nahi dugu. Azken batean, proiektu hau denon laguntzarekin ateratzen ari baikara aurrera.**

Goizeko 10.30etan egingo da lehen deialdia; galbana haundiagoa dutenentzat berriz, bigarren aukera bat egongo da 11.00etan. Ea puntual hasten garen! **Batzarrean** landuko den lehendabiziko gaia **Noaua! Kultur Elkartea** eratu zen aktaren irakurketa eta onarpena izango da.

Egindakoak eta egin beharrekoak aztertuz

Ondoren, 1996 urteko balorazioa egingo du zuzendaritza batzordeak: 1996ean egindako ekitaldi, kanpaina, kaleratutako aleak... Gero, pasatakoa alde batetara utzi eta 1997 urteari begira jarriko gara, eta zuzendaritza batzordeak aurreikusten duena azalduko du: zenbat ale kaleratuko diren, argitaratze datak, banaketa nola egingo den (ea orain bezala herritar guztiei banatu behar zaien edo beste formula bat erabili behar ote dugun), lan talde berriak osatzeko proposamena (banketxe eta enprekin harremanak bideratuko dituen taldea eta bazkideentzako eskaintzak landuko dituen beste bat)...

Egitasmoak ezagutu ondoren, arlo ekonomikoari helduko diogu: lehenik, 1996ko diru kontuak nola joan diren aipatuko dugu, eta ondoren, 1997ko

zenbakiak agertu eta onartuko ditugu egoki iruditu ezker. Behin matematika guztiak egingo da, aurretik jaso diren estatu-tuen aldakuntza proposamenak eztabaidatuko dira.

Segidan, orain arte lanean aritu den zuzendaritza batzordea eraberritu beharko da. Honoko kargu hauek dira aldatu beharrekoak: zuzendariordea (**Arantzazu Aranburu**), diruzaina (**Aitor Pikabea**), eta bokalak (**Iker Muguruza, Maite Zubeldia, Juanjo Gomez, Jakoba Ereondo eta Josu Aranberri**). Azkenik, batzarran zehar sor daitezkeen galderi tartea emango zaie, eta honekin amaitutzat emango da **Noaua! Kultur Elkartearen** lehen Batzar Orokorra.

Beno, den-dena ez, izan ere, hainbeste lan egin ondoren, sabelari ere goxatzeko aukera eman beharko zaio. Beraz, bile-ra amaitu eta gero bazkaria egitea pentsatu dugu. Urtero, sagardotegi edo jatetxe ezberdinetara joango gara, eta aurretin, Urdaira Sagardotegian bazkalduko dugu. Bertara, bazkide zein **Noaua!**ko irakurleak etorri ahal izango dira. Era honetan, herriko jendea elkar hobeto ezagutzeko aukera izango dugu, eta giro ezin hobean gainera. Badakigu bai usurbildarrok horrelako lanak mahaiaren inguruan ederki egiten. Zatoz ba zu ere Batzar Orokorrrera!

Idoia Torregarai



Jadanik 320 usurbildar gara Noaua! Kultur Elkartean, eta datorren martxoaren 22an, larunbata, gure lehen Batzar Orokorra ospatuko dugu. Etor zaitez!



ZUMET A
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMET A MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsalada hozber oatrufa zaporez
 - Zapoatxangurr ozbeteriketatsaski saltsaz
 - Aspizunapatatapure, onddo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
 - Etxeko azkenburuko endegustazioa
 - Ardo berezia eta kafea
- Bakoitzak 3.200 pta.

INTURAK FERNANDO

Bizkarre, 6 Usurbil
Tlf. 36 60 19 / 36 34 60

Margoak eta
paperak

Sintasola,
moketa,
kortxoak eta
tarima
jartzen dira

KORRIKA 10 Usurbildik pasa zenean...



KORRIKA 10ak herri guztia itxuraldatu zuen. Dortsalak jarri eta korrika egiteaz gain, ipuinak entzuteko aukera egon zen, magia egiteko astia, herri bazkariaz lasai lasai lagunartean jatekoa... Haurrak izan ziren lehen partehartzaileak ostiral arratsaldean.



Baina larunbat goizean ere jende askok utzi zuen ohe goxoa euskararen alde korri egiteko. 145. km.tik 153 km.ra bitartean usurbildarok eraman genuen KORRIKAREN lekukoa.

arg: Ekaitz



Arg: Ekaitz




Eta hurrengo eguneko nekeak uxatzeko, zer hobeto lasai lasai Morau-ren kantaldia entzutea baino?

Ez dute gaur egungo ikasle-
 en antzik hauek. Ez dute
 motxila handirik, ez Nike
 zapatilarik, ez Nintendorik.
 Beharbada orain izango
 dituzte. Baina hori egiaztatze-
 ko lehenengo zeintzuk diren
 jakin behar dugu.
 Horretarako zuen laguntza
 behar dugu.

Izen gehien ematen dizkigu-
 nari **Bordatxo** tabernan bi
 pertsonentzako afaria opari-
 tuko diogu.

Erantzunak Noaua! Kale
 Nagusian duen egoitzara
 bidali eta animo!





Euskaltegiko talde honi egokitu ziztaion **Tragoxka**
 tabernako afaria. *"Denontzako afarirako adina ez
 zaigu iritsiko, eta hamaitakoa egin beharko
 dugu!"* zioten irrifartsu. Euskaltegitik kanpora atera-
 tzeko eta "klase alternatiboa" egiteko aitzakia
 badute behintzat!.

Jaso ditugun erantzun guztiak zuzenak izan
 dira. Denok gogoratzen zarete orain **IZAGIRRE**
 fabrika dagoen lekuan zegoen baserria **ALPERRO**
 zela.

Oroimen frexkoa daukazue denok, baina
Antxeta jatetxeko afaria bi lagunentzat bakarrik
 da. Bat badakigu zein izango den: **Inaxio**
Pellejero kalezartarra. Eta bestea... berak auke-
 ratuko du. Zorionak eta on dagizuela!

omikia



Marijose Korfa

**TABERNA
 JATETXEA**

ANTXETA

EGUZKITZA, 4
 TEL: 37 03 44
 20.170 USURBIL

PELEX

Por la limpieza

**BAZKARIAK
 ETA AFARIAK**

Santuenea 23
 Tlf. 36 27 34

MARTXOAK 21 ostirala

- **UEMA**ko erakusketa ibiltaria-ren barnean, **Santuenean** arratsaldeko **18.00**etan **Xanti Magoa** ikusteko aukera izango dugu. **Haurren eskolan**.
- **Manifestazioa** egingo da **euskal presoak Euskal Herrira** ekartzeko. Aitzaga aurrean **20.00**etan.

MARTXOAK 22 larunbata

- **Josean Artzek Harria** izeneko ikuskizunean parte hartuko du **Gotañe-Irabarnen** (Zuberoa). Gaueko **21.00**etan.

MARTXOAK 24 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

MARTXOAK 25 asteartea

- **Kotxe karabana** herrian zehar. **20.00**etan.

MARTXOAK 26 asteazkena

- **UEMA**ren erakusketa ibiltaria-ren barnean, gaur, **Zubietan** arratsaldeko **18.00**etan **Xanti Magoa**ren ikuskizuna ikusteko aukera zango dugu. **Haurren eskolan**.

MARTXOAK 28 ostirala

- **Senideak**-en manifestazioa. Arratsaldeko **20.00**etan.

MARTXOAK 31 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

APIRILA 3 osteguna

- **Larrua Truk**-en kontzertua **Burgosen**. Sala Was.

APIRILA 4 ostirala

- **UEMA** zer den azaltzen duen erakusketa ibiltaria **Kalezarren** dago. Honen barnean, hainbat ekitaldi antolatatu dituzte: gaur, arratsaldeko **18.00**etan, **Xanti Magoa** ikusteko aukera izango dugu **Udarregi ikastolan**.

OHARRAK

- ⇒ **Martxoaren 17tik 23ra** bitartera **UEMA**ren erakusketa ibiltaria **Santuenean** ikusteko aukera izango dugu. **24tik 30era** berriz, **Zubietan** eta **martxoaren 31tik apirilaren 4ra** bitartean, **Kalezarren**.

- ⇒ **Andatza K.E.k Iparlara** travesia antolatu du. **Irteera** goizeko **7.00**etan izango da, **frontoi atzetik**. Izena alde zuretik emana.

- ⇒ **Korrika 10**aren amaierara joateko, **Bilborako** autobusa antolatu du **Etumetak**. Txartelak **Txiriboga** eta **euskaltegia**.

- ⇒ **Jarraik** mendi travesia antolatu du **martxoaren 24tik 29** bitartera. Izena **emateko**, **Aitzaga** eta **Txiribogan**.

Aurten **KORRIKA 10** Usurbilen ere izan dugu. Honek lana, buruhauste, eta abar ekarri dizkigu **AEK**ko irakasleoi; hala ere, hainbat herritar, elkarte eta erakundeek esker, **KORRIKA 10** txukun pasa da Usurbildik. Guzti hauen izenak aipatu eta denak eskertu nahi ko genituzke, baina leku arazoak, eta baten baten izena ahaztearen beldurrez ez dugu izenik aipatuko. Beraz, guztiok mila esker eta zorionak, **KORRIKA**, **AEK**rena baino **Euskal Herriarena** dela eta euskara maite duzuela adierazi duzuelako. Dena den, ez dezagun pentsa euskara egun bateko edo lagun batzuen kontua dela, zoritxarrez euskarak eguneroko **KORRIKA** behar ditu. Ez dezagun lan hau "batzuen" esku utzi eta eginkizuna dela jakinez, gure ahotsarekin egunero eta beti, eman diezaiogun euskarari bizitza, berak guri ematen digun bezala. **ESKERRIK ASKO!**



TZ F UT EN

E un r k frut t r zk k
J n r n k uk r z l

Esk ntz r z

Koipe olioia 100° 439 pta.



Eguzkitza, 4 USURBIL Tlf. 36 49 81

Kirol agenda

MARTXOAK 22 larunbata

- kadete mailako eskubaloi partidua (N): **Usurbil K.E.-Urrietako. Oiardo** kiroldegian, arratsaldeko **16.00**etan.
- Jubenil mailako **eskubaloi** partidua (N): **Usurbil K.E.-Urola. Oiardo** kiroldegian, arratsaldeko **18.00**etan.
- Kadete mailako **eskubaloi** opartidua (M): **Hondarribia-Usurbil.**
- Jubenil mailako **eskubaloi** partidua (M): **Hondarribia-Usurbil.**
- Bigarren nazionaleko **esku-baloi** partidua (M): **El Pilar-Usurbil K.E. Gasteizen.**
- **Areto futboleko** partidua (M): **Antxeta- Gubi Zarautz. Oiardo** kiroldegian, arratsaldeko **19.00**etan.



Aginaga Sagardotegiko jokalaririk forma onean dabilta, klasifikazioan bigarren baitaude. Ea gogor entrenatzen jarraitzen duten eta datorren **martxoaren 23an Cristina Junior** taldeari irabazten dion Usurbilgo taldeak

MARTXOAK 23 igandea

- Senior mailako **saskibaloi** partidua (M): **Usurbil S.T.-C.D. Kostkas. Oiardo** kiroldegian, goizeko **11.00**etan.
- Erregionaleko **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- Mariño**
- **C.D. Harane futbol zelaian**
- Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Oiartzun K.E.B.-Usurbil F.T.**
- Futbol partidua (N): **Usurbil F.T.- Oiartzun.**

E maitzak

ESKUBALOIA

Martxoak 8-9

Usurbil- Hernani, 13-8 (kad,n)
Usurbil- Leizaran, 25-29 (jub,m)
Urdaneta- Usurbil, 24-19 (jub,n)
Urdaneta- Usurbil, 21-15 (kad,m)
Pulpo- Usurbil, 31-19 (2.naz.,m)

Martxoak 15-16

Zarautz- Usurbil, 22-6 (kad, n)
Bergara- Usurbil, 26-29 (jub, n)
Usurbil- Arrate, 16-24 (kad, m)
Usurbil- Arrate, 22-22 (jub, m)
Usurbil- Portugalete, 24-18 (2.n, m)

SASKIBALOIA

Martxoak 8

La Salle- Usurbil, 62-35 (senior,rak)

Martxoak 15

Irurok- Usurbil,, 70-35 (senior)

FUTBOLA

Martxoak 8-9

Usurbil- Vasconia, 3-2 (kadet, m)
Usurbil- M. Bihotza, 1-1 (jubenilak, m)
Donibane- Usurbil, 3-1 (erreg., m)
Hondarribia- Usurbil, 4-0 (neskak)

Martxoak 15-16

Bergara- Usurbil, 4-1 (neskak)
Usurbil- Gwendolyne, 1-1 (erreg.,m)
Gazteak- Usurbil, 2-0 (jubenil, m)

ARETO FUTBOLA

Martxoak 8-9

Antxeta- C.Extremeño, 6-1 (m)

Martxoak 15-16

Axular- Antxeta, 5-5 (m)

HONDARTZAKO FUTBOLA

Martxoak 9

Aginaga Sagardotegia- Ederra 13-2



BAZKIDE TXARTELA

5.000 PEZETAK URTE OSORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

H A M A B O S T E K A R I A
Noaua!

Aprobetxatu txotx egiteko garai eta giro onena

saizar



Hemendik aurrera 45 kupeletako sagardoa
dastagaidenboraldiosoan.

Kalezar
Tlf. 36 22 28

urDAiRA



Eguneroirekita, igandegauetanezik.
Bertakosagardoberriaprobatzekoaukera.

Aginaga
Tlf. 37 26 91

AGiNA GA



Eguneroirekiaastelehenetanezik.
Menu aukerazabala, sagardotegikoabarne.

Aginaga
Tlf. 36 67 10

Araeta



Urteosoan txotxetik bertako sagardoa.
Egunerozabalik. Lekulasaietaaparta.

Zubieta
Tlf. 36 20 49

ilLunbe



Txotxenboraldiairekiberria.
Aurtengo sagardoa dastagai.

Txoko alde
Tlf. 37 16 49

iruin



Bertakosagardoberriadastagai.
Sagardotegikogiroa eta menua.

Zubieta
Tlf. 36 12 29

